



Autoeraikuntza, askoren ahotan, aukera bat izatetik, derrigor hartu beharreko aukera izatera pasatuko daiteke aurki, egungo koiuntura ekonomikoak hala aginduta. Orainsu arte gutxi batzuek aintzat hartzen zuten aukera izanda, urte gutxiren buruan denon ahotan (eta askoren eskuetan) dagoen gaia dugu. Baina DIY (edo BIY –Build It Yourself–) ez da berez kontzeptu berria, ezta arrotza gure inguruan. Garai ez oso urrun batean, autoeraikuntza ez zen aukera bat. Zegoen aukera bakarra baino, errealitate bakarra. Zer ziren ba, baserriak, autogestionatutako ekonomia guneak baino? Eta ez soilik autogestionatutakoak, baizik eta autoeraikitakoak ere. Familian, auzolanean eraikitakoak. Belaunaldiz belaunaldi jarauntsitako teknika eta egiteko moduak oinarri hartuz eraikitakoak.

Hamarkada gutxitan ordea, bidean burujabeago ginelakoan, dena delegatzeari ekin genion. Osasuna enpresa farmazeutikoen esku utziz, elikadura erraldoien menpe lagaz, arropak urrun ekoiztuz, eta gure etxeen eraikuntza industriaren interesean dantzatuz. Honetan, askotan, pertsonenak diren oinarritzko beharrak eta lehentasun nagusiak baztertuta

geratu dira; pertsonenen ostean dauden norbanakoenak are urrunago oraindik. Besteen artean etxebizitza asko eta asko industriaren eta sistemaren interesen arabera gauzatu dira, norbanakooi horrek erantsita ekarriko galera guztiekin. Norberarena ez den neurrira eraikitako horma artean bidea aurkitu nahian.

Kexak eta erreguak alde batera utzita, ordea, modu aktiboan parte hartu nahi dugu gure etorkizunerako plazak eraikiz. Berrindartuta datoz gisa askotako prozesu eta dinamika parte hartzaileak; osasunaren autogestioan sinesten dugu; elikagaiak gure eskuz ekoiztu nahi ditugu eta arropak elkarrekin ehundu. Ahalduntze prozesu sakon kolektiboan barne norbanakoa bere aukerez jabetzen da. Gure mundu eta espazio propioa eraikitzeko bide honetan BIY, eta are gehiago orain BIWO (Build It With Others). Zuk zeuk eraiki, eta ahal bada, eraikizazu besteekin. Bide honetan bertan, arkitekturatik esparru zabal bat zabaltzen zaigu. Arkitektoak pertsona asko pizten dituen grina bideratzeko tresnen jabe gara; haien beharretara egokituz, haien neurrira berrasmatur.

Inhar Agirrezabal eta Anartz Ormaza
Zenbakiko arduradunak